

Zumaiaren sorrera eta 1347ko fundazio-foruaren aurrikinak

(Zumaia foundation and background to the foundational law of 1347)

Lema Pueyo, José A.

UPV/EHU. Letren Fak. Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren Historia Saila. Unibertsitatearen Pasealekua, 5. 01006 Gasteiz.

Curiel Yarza, Iosu

Eusko Ikaskuntza. General Álava, 5. 01005 Gasteiz

BIBLID [1136-6834 (2009), 36; 45-61]

Jaso: 2009.01.29

Onartu: 2009.07.23

Komunikazio honen helburua Zumaiaiko 1347ko foruaren aurrikinak hobeto ulertzea da eta, aldi berean, aurkitutako dokumentazio berria aztertuz, galdera eta kezka berriak azaltzea. Azkenez, prozesua, orain arte pentsatu duten baino askoz konplexuagoa izan zela frogatzen da.

Giltza-Hitzak: Foruak. Hiribiduak. Zumaia. Orreaga. Lope Ibañez de Arriaga. Aitorensemeak. Ahaide Nagusiak. Elizaren patronatuak.

La presente comunicación pretende ilustrar los antecedentes del fuero de Zumaya, concedido en 1347. Al mismo tiempo, tiene como objetivo plantear nuevos problemas y preguntas, mediante el análisis de nueva documentación. En último término, deja claramente probado que fue un proceso más complejo de lo pensado hasta ahora.

Palabras Clave: Fueros. Villas. Zumaya. Roncesvalles. Lope Ibañez de Arriaga. Hidalgos. Parientes Mayores. Patronatos eclesiásticos.

Cette communication tente d'illustrer les antécédents du fuero de Zumaya, accordé en 1347. En même temps, son objectif est de présenter de nouveaux problèmes et de nouvelles questions au moyen de l'analyse d'une nouvelle documentation. En dernier lieu, il est clairement prouvé que ce fut un processus plus complexe qu'on ne l'avait pensé jusqu'à présent.

Mots Clé : Fueros. Villes. Zumaya. Roncevaux. Lope Ibañez de Arriaga. Hidalgos. Parents Agés. Patronages ecclésiastiques.

Tokiko Historia IX. Jardunaldietara aurkeztu genuen lan honek helburu zehaztua zuen: izenburuan adierazten den bezala, Zumaiaiko 1347ko populaketa-gutunaren aurrikinak aztertzea eta beren konplexutasun historikoa ulertzea. Aldi berean, gure argudioak oinarritu nahian, lana osatzeko eranskin dokumentala gehitzen da¹.

1. ZUMAIAREN SORRERA HISTORIKOAREN INGURUAN. EZTABAIDARAKO ABIAPUNTUA: EGUN DAKIGUNA

Ikerketa-lan guztietan badago errespetatu beharreko prozedura. Lehen urratsa, aztertu nahi den arazoaz orain arte aurreko ikerlariak erdietsiriko ondorioak laburbiltzea litzateke. Beraz, gure komunikazioaren izenburuari begira, hasierako galdera hau egingo dugu: zer esan dute egunera arte Zumaiaiko lehen historiaz?

1.1. Orreagako ospitalearen eragina Zumaian

Agiri idatziek mugapen zorrotzak inposatzen dizkigute. Izan ere, Zumaiairi buruzko lehen bi aipamenak ez ditugu XIII. mendearen hasierara arte aurkituko. Inozentzio III.ak eta Honorio III.ak emandako buldak dira: bata, 1203an; bestea, 1218an. Agiriotan, Aita Saindutzak Orreagako ospitalearen ondarea bere babespean hartzen zuen. Bi dokumentu horiek, egitura eta edukinari dagokienez, oso antzekoak direnek, ospitalearen ondarea osatzen zuten ondasunak aipatzen dituzte zerrenda luze batean. Hemen topatzen ditugu interesatzen zaizkigun lehen albisteak. Dirudienez, garai hartarako bazegoen Zumaiaiko Santa Maria eliza eta bere kontrolpean, lau errota. Eman diezaiogun hitza dokumentazioari: *Sancte Marie de Çumaya, cum omnibus pertenenciis earum, quatuor molendina de Dorre cum tota sua hereditate*². Informazio argigarriak dira: badakigu, XIII. mendea hasitakoan, Zumaian nolabaiteko asentamendu bat zegoela jadanik. Santa Maria ez zen ermita isolatua. Elizarekin batera lau errota agertzen dira: horrek guztiak esan nahi du jatorrizko gunearen inguruan ordurako nekazaritzajarduera nabarmena zela, zegokion biztanlegoarekin. Baina askotan gertatzen den bezala, kasu honetan ere datu historikoek arazo berriak sortzen dituzte. Bi galdera datozkigu burura. Noiz eraiki zuten Zumaiaiko eliza hori? Noiztik zegoen Orreagaren eskuetan?

Hamarkada batzuk igarota, 1292an zehazkiago, Gaztelako Antso IV.ak Zumaiaiko Santa Maria *monasterioa* Orreagari eman zion: *con términos, con mon-*

1. Komunikazio hau ikerketa-proiektu batean sartzen da. Proiektu hori (HUM 2004-01444/HIST), *De la Lucha de Bandos a la hidalguía universal: transformaciones sociales, políticas e ideológicas en el País Vasco (siglos XIV al XVI)* izenburua duena, Euskal Herriko Unibertsitateak, Eusko Jaurlaritzak eta Zientzia eta Teknologia Ministerioak finantzatu dute. Bere zuzendari eta ikerlari nagusiari, Jose Ramon Diaz de Durana Ortiz de Urbinari, egileok esker ona erakutsi nahi diogu dokumentazioaren bilketan emandako laguntzagatik.

2. OSTOLAZA ELIZONDO, María Isabel. *Colección Diplomática de Santa María de Roncesvalles (1127-1300)*; 1. arg. Iruñea: Institución Príncipe de Viana, 1978; 26 eta 49. agiriak.

tes, con huertas, con pastos, con vasallos, e con todos los derechos e pertenencias, quantas an e deven haber. Baziren baldintzak: tenpluan kaperau bat mantentzea eta erregeren salbazioaren alde otoitzak eta elizkizunak egitea. Subiranoaren senideak ere kontuan hartuko ziren otoitzetan: Maria emaztea, aita (Gaztelako Alfontso X.a) eta los otros antecesores, que edificaron este logar³. Azken aipamen horren inguruan, eztabaida bizia piztu da ikerlarien artean. Ez daki-gu zehazki nortzuk ziren antecesores horiek. Badakigu 1199an Gaztelako Alfontso VIII.ak Gipuzkoa hartu zuela bere menpean. Agian, errege hori (1158-1214), Antso IV.aren dinastia bereko kidea, izan zen elizaren fundatzailea. Horrela uste dute Luis Martínez Kleiserrek, Isabel Ostolazak eta Lourdes Odriozolak⁴. Azkenez, Juan B. Olaechearentzat, elizaren sorrera XII. mendean kokatu beharra dago. Egitez, 1203ko Orreagako bulda, Santa Maria aspalditik existitzen zelako seinalea litzateke⁵. Egile horren ustez Santa Maria eliza Gartzia Ramirez errege nafarrak fundatu zuen (1134-1150). Oztopo bat legoke bere proposamena onartzeko: 1292ko donazioan, Gaztelako Antso IV.ak bere *aurrekoek* tenplua eraikinarazi zutela jakinarazten digula, hain zuzen. Nola izan zitekeen Gartzia Ramirez errege nafarra Gaztelako monarka baten aurrekoetako bat? Gainera, Olaechearentzat, aurreko errege horiek Antso IV.aren senideak izan behar zuten derrigor, hau da, bere arbasoak. Olaecheak korapiloa askatzearen, errege-leinuen arteko lotura dinastikoetan bilatzen du arazoaren konponbidea. Blanka, Gartzia Ramirezen alaba, Gaztelako Antso III.aren emaztea izan zen, eta ezkontza horretatik jaioko zen Antso III.aren ondorengoa, Alfontso VIII.a., Antso IV.aren arbasoa⁶. Hala ere, gure ustez, agiriaren aipamena ez da hain zehatza. Los antecesores hitzen esanahia zabal samarra da. Ez da beharrezkoa edo ezinbestekoa antecesores horiek Antso IV.aren senideak izatea. Beste modu batera uler liteke aipamena: Antso IV.ak baino lehenago Zumaia eliza kontrolatu zuen aurreko edozein errege, gehiago zehazteke.

Dena dela, hasieran errege-kapera izan zen Santa Maria eliza, XII. mendean zehar Orreagaren jaurgoan sartuko zen. 1137an Inozentzio II.ak Orreagako Ospitalea eta bere ondasunak babesteko bulda bat eman zuen. Dokumentuak ez digu Zumaia tenpluaren berririk ematen. Esan bezala, lehen aipamena ez da 1203ra arte ageriko. Bitartean, zein erregek eman zion eliza Orreagari? Ustezko fundatzaileak, Gartzia Ramirezek (1134-1150)? Antso VI.ak (1150-1194), 1176an Orreaga Koroaren babespean onartu zuena, ala Antso VII.ak (1194-1234)?

3. MARTÍNEZ DIEZ, Gonzalo; et al. *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas 1.* (1200-1369), 1. arg. Donostia: Donostiako Foru Aldundia, 1990; 61. agiria.

4. MARTÍNEZ KLEISER, Luis. *La villa de Villagrana de Zumaya: apuntes y pormenores históricos*, 1. arg. Madril; 46-47 orr. OSTOLAZA ELIZONDO, María Isabel: "La Organización Eclesiástica Guipuzcoana durante la Edad Media". In: *Kongresua: Donostiako Forua eta bere garaia (1981eko urtarrilaren 19tik 23ra)*, 1. arg. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982; 161 or. ODRIOZOLA OYARBIDE, Lourdes. *Historia de Zumaia*, 1. arg. Zumaia: Zumaia Udala, 1998; 36-37 orr.

5. OLAECHEA LABAYEN, Juan Bautista. "Las iglesias más primitiva de Guipúzcoa: el caso de Zumaia". In: *BRSBAP*; LV-1 zenb., 1999. Donostia: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País; 174-175 orr.

6. OLAECHEA LABAYEN, Juan Bautista. "Zumaia y su vinculación antes y después de la promulgación de la carta puebla". In: *Zumaia 650. mendeurrenaren hitzaldiak*, 1. arg. Zumaia: Zumaia Udala (L. G.: 1999); 215-216 orr.

Bestalde, zaila da 1292ko agiria ulertzea. Urte horretarako, Orreaga elizaren jabea bazen, Antso IV.ak ospitaleari berriro entregatzeak kontraesana ematen du. Bi konponbide bururatzen zaizkigu. Bata, XIII. mendean barrena Orreagak monasterioa galdu izana usurpazio edo auziren baten ondorioz; bestea, lehen donazioa, errege nafar batek egindakoa, erabatekoa ez izatea, erregeek zenbait eskubide erreserbatu eta gorde zituelako. Horrela izan balitz, bi eskubide pilatuko ziratekeen, aldi berean: Koroarena eta Pirinioetako ospitalearena. Bestalde, 1292ko agirian ere monarkak zenbait mugapen inposatu zizkion Orreagari, Zumaiako monasterioa besterentzeko, erregeren baimena ezinbestekoa baitzen.

Antso IV.aren donazioak *basailuak* ere aipatzen ditu. Testuinguru horretan, gune horretako biztanleetako batzuk elizaren menpeko nekazariak zirela pentsatu behar dugu, Orreagaren jaurgoa bizi zirenak. Egia esan, ez dakigu zer zerbitzu egiten zuten monasterioarentzat, ezta zer zamak zergapetzen zituzten ere. XIII. mendeko buldek lau errotaren berri ematen dutela ikusita, hipotetikoa bada ere, daitekeena da inguruetako basailuok Santa Maria elizaren errotak erabiltzera beharturik egotea, jaurgoari zegozkion tasak ordainduz. Gainera, Santa Maria Zumaiako jatorrizko parrokia izanik, garbi dago hamarrenak kobratzen zituela bertako biztanleengandik. Hasieran, erregeek hartzen zituen patrono eta babesle gisa eta geroago, Orreagak, erabat edo erregerekin partekaturik.

1.2. Foruaren donazioa

Zumaiako hasierako gunea Saiaz “haranean” zegoen. “Haran” hori ez zen kontzeptu geografikoa, berez, baizik eta barruti zabal bat, non, herrisketetan sakabanatutako biztanle-multzok bat finkatzen baitzen. Distrito horren mugak zailak dira deskribatzen. Dirudienez, Hegotik Iparrerra, Ernio menditik itsasertzeraino hedatzen zen, eta kostaldean, Ekialdetik Mendebaldera, Oriako bokaletik Urolako bokalera arte. XII. mendearen amaieran hasi zen lurralde horren zatikaketa. Foruez eta pribilegio berezietz gozatzen ziren hiribilduak sortuko ziren (Getaria eta Zarautz, kostaldean), ondorioz Saiaz haraneko jurisdikziotik aterako zirenak⁷.

Hiribilduaren kondizioak abantaila nabariak ekar zitzakeen merkataritza eta itsas-garraioari esker garatzen ari ziren lekuentzat. Zumaiak ez zuen prozesu horretatik at geratu nahi. Hiribildua sortzeak biztanleen menpekotasun-loturak eta zamak arintzea eskatzen zuen. Horretarako ezinbestekoa zen Orreagarekiko akordioak negoziatzea. Egitez, 1344ko urriaren 30ean, hiribilduaren fundazioan pentsatuta, biztanleek eta ospitaleak elkartruke bat egin zuten. Oso konplexua den testu horrek abantaila handiak ematen zizkien Zumaiako biztanleei. Funtsean, zumaiarrek Orreagako ospitaleari urtero 400 marabediko errenta ordainduko zioten. Horren truke, hiribilduaren sorrera ahalbideratzeko, hogeita bi ondasun higiezin lortu zituzten inguruetan. Gainera, *Zumaiako eliza eta ospitale-*

7. BARRENA OSORO, Elena. "La carta puebla de Zumaia: la sociedad que trasluce el texto". In: *Zumaiako 650. mendeurrenaren hitzaldiak*, 1. arg. Zumaia: Zumaiako Udala (L. G.:1999); 11-31 orr.

aren administrazioa eta antolamendua arautu zituzten. Xedapenak laburbilduz, biztanleek kaperaua aurkezteko eskubidea irabazi zutela esan daiteke⁸.

Prozesua 1347ko uztailaren 4an burutu zen. Data horretan Gaztelako Alfontso XI.ak populaketa-gutuna eman zien Zumaiako biztanleei, beraiek eskaturik. Dokumentua laburbilduz, zenbait pribilegio erdietsi zituzten: Jakako forua, Donostian, Getarian eta Mutrikun aplikatzen zen bezala; udalerria (Urola ibaiko bokaletik Narruondo eta Oikiaraino), belardiak, basoak eta portua barne hartzen zituena; hasierako kontzejuaren ardurak (alkateak, probestua, eskribaua eta bestelako ofizialak); eskumen judizialak; jabegoaren bermak eta zenbait zamaren askapenak eta mugapenak. Zumaiak, hiribildu bihurtutakoan, bere historiaren aldi berri bati ekingo zion⁹.

1.3. Santa Maria monasteriotik San Pedro parrokiara

Zumaiaren sorreraren inguruan beste “misterio” bat tokiko tenpluen identifikazioa izan da. Hasieran, Santa Maria eliza aipatzen dute dokumentuek. Hala ere, gaurko parrokiaren izena San Pedro da. Nola ulertu eta azaldu ezberdintasun hori? Eztabaida laburbildurik, zenbait egilek –Martínez Kleiserrek, Lizarralde, Mayorak– bi eraikin eta erakunde ezberdin zirela uste zuten. Olaecheak, azken hamarkadetan barrena arazoa xehekien aztertu zuenak, bi izenok eraikin berari dagozkiola iradoki zuen. Olaechearen aburuz, urteak igaro ahala, izenaren aldaketa gertatu zen, hots, eliza Santa Maria deitzetik San Pedro deitzera pasatu zela. Egia esan, azken iritzi hori, egun nagusi denak, dokumentazioan oinarritzen da: 1382an, Orreagako Ospitalearen eta Deba hiribilduaren arteko auzi bat zela eta, Debak emandako prokurazio-gutunean ondoko aipamena agertzen da: *Santa María de Çumaya, que ha agora nonbre Sant Pedro de Çumaya*. Datazioan ez dago inongo nahasketarik: *Fecha esta carta de procuración en el dicho arenal, treze dias del mes de iullio, era de mill et quatrozientos et beynte aynos*¹⁰. Garbi dago, behintzat, XIV. mendean zehar, hagianimoaren aldaketa izan zela eta, zenbaiten iritzi, mendearen erdialdean agian¹¹.

E. Barrenaren ustez, hiribildua fundatu zutenean, kontzejuak elizaren izenaren aldaketa bultzatu zuen, tokiko komunitatea eta biztanleria Orreagako ospitaleetik bereizteko asmoz. Bestalde, egile berak iradokitzen duenez, San Pedoren

8. MARTÍNEZ DIEZ, Gonzalo, et alii. *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas* 2. (1370-1397), 1. arg. Donostia: Donostiako Foru Aldundia 1997; 593 agiria. OLAECHEA LABAYEN, Juan Bautista. “Reflexiones filológicas en torno a una arcaica toponimia de Zumaiá”. In: *Fontes linguae vasconum*, 81 zenb., 1999. Iruña: Institución Príncipe de Viana, 301-308 orr.

9. MARTÍNEZ DIEZ, Gonzalo, et alii: *Colección ... 1. (1200-1369)*; 238. agiria.

10. MARTÍNEZ DÍEZ, Gonzalo, et alii. *Colección... 2. (1370-1397)*; 443 eta 444. agiriak. Agiriak aro hispanikoaren arabera dataturik egonda, 38 urte kendu behar zaizkio urtearen adierazpenari. Beraz, aro (era, agirian) 1420 baldin bada, eguneratu ondoan, 1382 izango da.

11. OLAECHEA LABAYEN, Juan Bautista. “Zumaiá y su vinculación con Roncesvalles”, 202-208 orr., nahiz eta egile horren kalkulu kronologikoak eztabaidagarriak izan neurri batean.

gurtza erroiturik zegoen agian Saiaz “haranean” hiribildua fundatu aurretik. Horrela izan balitz, aldaketak aurrikinak zituzkeen tokiko tradizio erlijiosoetan¹².

2. DOKUMENTU BERRI BAT: LOPE IBAÑEZ DE ARRIAGA ETA ZUMAIAKO BIZ-TANLEEN ARTEKO ITUNA

Orain arte, historialariek dakitena laburbildu dugu. Egia esan, itzalez betetako koadroa daukagu gure aurrean. Ez da harritzeko, testuen eskasia kontuan hartuz gero. Gure ezagutzak hutsuneak agertzen ditu edonon. Ondorioz, Zumaiaren sorrera argitzeko kontserbatu diren agiriak hain gutxi izanik, edozein dokumentu berrik ekarpen garrantzitsuak egiteko aukera eman diezaguke, baita galdera eta zalantza berriak sortaratzeko aitzakia ere. Zortea izan dugu: 1344ko abenduaren 27an Lope Ibañez de Arriagak eta Zumaiako *lekuko* biztanleek itun bat negoziatu zuten. Nahiz eta Irargiren *Badator* datu-basean katalogaturik egon¹³, dakigunez, historialariek ez dute testu hau aztertu Zumaiaren lehen historia ikertzeko. Beraz, ikus dezagun zer argibide ematen digun testu horrek. Lehen urratsa dokumentua aurkeztea izango da. Horra hor.

2.1. Agiriaren ezaugarri artxibistiko eta diplomatikoak

Itunaren jatorrizko testua ez da kontserbatu. Gure eskuetan daukaguna 1535-1536 urteetako auzi baten espedientean txertatutako kopia da. Aipatu auzian bi protagonista ziren, Zumaiako biztanleak biak: alde batetik, Lope Fernandez de Zumaya, auzi-jartzailea, tokiko familia boteretsuenetako kidea; beste aldetik, Joan Fernandez de Arbeztain, demandatua. Epaiketaren arrazoia Zumaiako bokaleko urtegi edo urmahel baten erabilera zen. Lope Fernandez de Zumaiak eta bere emazteak, instalazioaren jabegoa gorde eta defenditu nahi zutenek, zurezko taulak urtegian botatzea debekatu zioten Arbeztaini. Azken horrek, bere interesak justifikatzeko, Zumaiako biztanle guztiek urtegia erabiltzeko eskubidea zutela aitortu zuen. Zumaiako alkateek beraiek, Joan Miguelez de Asquiçuk eta Lope Fernandez de Yçetak, eman zuten lehen epaia, Lope Fernandez de Zumayaren aldekoa. Galtzaileak, Arbeztainek, helegitea aurkeztu zuen Del Barco Gipuzkoako korregidorearen Auzitegian. Korregidorearen sententzia, 1535eko abenduaren 16koa, berriro aurkakoa izan zenez, Arbeztainek apelazioa egin zuen baina Valladoliden orain, Errege Auzitegi gorenean.

Testuinguru honetan, Lope Fernandez de Zumayak 1344ko ituna aurkeztu zuen froga gisa bere eskubideak defenditzeko. Dirudienez, jatorrizko bertsoa erakutsi zuen (*esybió la escriptura oreginal escripta en pargamino de cuero*). Bestalde, badakigu 1476an Errege Kontseiluaren aurrean dokumentua dagoe-neko erabilia zutela. Azkenez, auzian zehar, Valladolideko Auzitegiko eskribauek kopia egin zuten, egun gordetzen duguna.

12. BARRENA OSORO, Elena. "La carta puebla de Zumaia"; 30. or.

13. Agiriaren fitxa katalogafikoa ikusteko: <http://www.irargi.org>.

Agiria, esan bezala, Lope Ibañez de Arriagaren eta biztanleen arteko ituna izan zen. Egileek Ochoa Ibañez Getariako eskribauari idaztarazi zioten testua, Getariako eta Aizarnazabalgo lekukoaren aurrean. Segidan, zumaiarrek eta Lope Ibañezek agiriaren ale bana jaso zuten (*de todo esto las dichas partes rogaron a mí, Ochoa Ybáñez, notario y escrivano público de la villa de Guetaria, que fiziese ende dos cartas partidas por a, b, c, para cada una de las partes la suya*). Biztanleek, Zumaiako kontzejua eratuko zutenek, ez zuten beren alea gorde. Ez zitzaizen interesatzen, agian. Lope Ibañezen ondorengoek, gero ikusiko dugunez, zuhurkiago jokatu, bai¹⁴.

2.2. Agirian aipatutako erakunde eta pertsonaien identifikazioa

Hitzarmen honetan, bi alde hartu zuten parte: batetik, Zumaiako biztanleek; bestetik, Lope Ibañez de Arriaga jaunak. Azter ditzagun banan bana.

2.2.1. Kontzejuaren ordezkariak

Biztanleen artean, bi talde bereiz daitezke. Lehenik, izen bereziki nabarmentzen diren zortzi pertsona¹⁵. Beraien abizenak, zenbait kasutan, inguruetako toponimian ere agertzen dira. Beltran Ibañez de Dornutegui zerrendako lehena da. Pertsona honen abizena, gaur egun Artadi auzoko Tornutegi eta Tornutegiberri baserrien izenek gogorarazten digute. Modu berean, baserrion ondoan, Urolako ertzean, Tornutegiko buelta zeharrunea aurkitzen dugu. Artadi auzoan ere, Arteaga baserria kokatzen da, beste protagonistetako baten abizena. Bestalde, Pedro Ibañezek bere deituran agertzen duen Ochango toponimoa, Oikia auzoan ikus daiteke. Juan Martin de Çeçenarriori dagokionez, Aizarnan Ezenarro deitzen diren bi baserri daude gaur egun ere. Ondorioz, lagun hauen jatorria Zumaiako zonaldean kokatu daiteke, Urolaren ibaibidearen bukaeraldean.

Izendatutako zortzi pertsona hauekin batera, itunean Zumaiako beste biztanle batzuk ere azaltzen dira. Hauek, ordea, modu orokorrean aipatzen dituzte, izen-abizenik zehaztu gabe: *grand partida del pueblo común pobladores del logar de Çumaia*. Biztanleen arteko bereizketa hau Zumaiako komunitatearen barnean zegoen desberdintasun sozialaren isladatzat hartu beharko litzateke. Gure ustetan, dokumentuan lehenik agertzen diren zortzi pertsona hauek tokiko aristokrazia edo elitearen adierazleak izango lirateke. Beraien gizarte-gailentasuna, hiribilduaren sorrera prozesuan izandako protagonismoan ere antzeman daiteke. Azken finean, Lope Ibañezekiko akordioan biztanlegoaren ordezkari izan zuten, antza.

14. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Escribanía Varela. Pleitos Fenecidos. C 476/1, 5.

15. Beltran Ibañez de Dornutegui, Beltran de Arteaga, Pedro Ibañez de Ochango, Juan Iñiguez de Anda, Juan Martin de Cecenarro, Martin Lopez de Liaobiaga, Pedro Ibañez de Ganboa "Matanqua" eta Ganbo de Eçuri.

2.2.2. Arriaga familia

Zumaiako biztanleek, Lope Ibañez de Arriagarekin sinatzen dute akordioa. Zumaiako Arriaga sendiari buruzko beste daturik ez dugu. Inguruetan ez dugu haiei buruz hitzegiten duen dokumentaziorik aurkitu, ezta deitura honekin erlazionatutako toponimorik ere. Informazioa beste nonbait bilatu behar dugu.

Lehen esan bezala, 1344ko abenduaren 27ko akordioa XVI. mendeko prozesu batean tartekatua dago. Epaiketa honek, leinu honen garapena eta eraldaketa ulertzeko, argibide baliotsua ematen digu. Auzi-jartzaileak, Lope Fernandez de Zumayak, aspaldian bere sendiak Zumaiako lekuan eskubide batzuk izan zituela frogatzearen, Lope Ibañezen eta bertako biztanleen arteko akordioa aurkezten du epaileen aurrean. Agiri honen bitartez, Lope Fernandez de Zumayak Lope Ibañez de Arriagarekiko ahaidetasuna aldarrikatzen du. Epaiketan kontrako auzilaria den Joan Fernandez de Arbeztainek ere Arriaga eta Zumaya familien arteko erlazioa onartzen du: *qu'el sytio de la dicha villa e yglesia hera propio del dicho parte contraria y sus pasados*. Beraz, Lope Ibañez de Arriaga, Lope Fernandez de Zumayaren arbasoa izan zela ondorioztatzen da.

Zumaya leinuari buruzko informazioa oso urria da. Besteak beste, Lope Garcia de Salazarrek ematen dizkigu zenbait datu. Kronikariaren arabera, Zumaia hiribilduan ezarritako Ganboatarren ondorengoak izango lirateke leinu horretako kideak. Geroago, Ierro beretik Olaso eta Zarauzko adarrak sortuko ziren¹⁶. Aurkitzen dugun dokumentu-aipamenik zaharrena XV. mendearen erdialdekoa da. 1456ko uztailean, Ahaide Nagusiek hainbat hiribilduren kontra egindako mehatxuan, jaunen izenen artean Lope Fernandez de Zumaya aipatzen da, Olasoko jauna den Martin Ruiz de Ganboaren ahaide eta bandokideen artean¹⁷. Beraz, Ganboatarren bandoko Ahaide Nagusien leinu bat zela adierazi daiteke.

Familiak eragin handia izan zuen Zumaiako hiribilduan. Horrela, leinu-buruek probestuaren ardura ere eduki zuten hainbat belaunalditan. Hala nola, aipatutako Ahaide Nagusien erronkan azaltzen zen Lope Fernandez de Zumaia, hiribilduko probestua izan zen XV. mendearen erdialdean¹⁸. Hogei urte geroago gutxi gorabehera, Lope Garcia de Salazar bere obra idazten ari zelarik, Lope de Zumayak, Lope Fernandezen ondorengoak, betetzen zuen ardura hori¹⁹. Borja de Aginagaldek, XVI. mendearen erdialdean beste Lope Fernandez de Zumaya baten berri ematen digu. 1530. urtean Zumaian bizi eta Catalina de Indane-

16. VILLACORTA MACHO, María Consuelo. *Edición crítica de las buenas andanzas e fortunas que fizo Lope García de Salazar*, 1. arg. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2005; 261-265 orr.

17. DALMASES, Candidus (S. I.). *Fontes Documentales de Sancto Ignatio de Loyola*, 1. arg. Erroma, Institutum Historicum S. I. (*Monumenta Historica Societatis Iesu*, CXV. T.), 1977; 14. agiria.

18. AGINAGALDE, Francisco Borja de. "Notas sobre los niveles estamentales más elevados de la estratificación social en Guipúzcoa en 1450-1550: La zona del Bajo Urola". In: *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 16-17 zenb., 1982-1983. Donostia: Grupo Doctor Camino de Historia Donostiarra de la RSBAP; 322-323 orr.

19. VILLACORTA MACHO, Consuelo. *Edición crítica de las buenas andanzas*; 265 or. AGINAGALDE, Francisco Borja de: "Notas sobre los niveles estamentales"; 322-323 orr.

tarekin ezkondua zegoen Zumaya sortetxeko jaun hau Rouenen hil omen zen 1561ean. Lope Fernandez hau litzateke, hain zuzen, 1535-1536 urtetako prozesuaren protagonista.

Gainera, gauzak korapilatzeke, Tola de Gaytan markesak esandakoaren arabera, XVI. mendeko Lope Fernandez de Zumaya baino lehenago, XV.mendearen bukaeran, Juan Martínez de Arteaga deituriko Zumaya familiako beste jaun bat izan zen²⁰. Zer lotura zegoen Zumaya eta Arteaga abizenen artean? Bi abizenok leinu bera aipatzen dute? Familia ezberdinak ziren, nahiz eta harremanak eduki Berant Erdi Aroan?

Bestalde, gogoan izan behar dugu 1344ko itunaren protagonista: Lope Ibañez de Arriaga. Gerta daiteke nahasketaren bat izatea eta 1344ko pertsonaia Lope Ibañez de Arteaga deitzea. Kopia-akats baten eraginez Arteaga abizena Arriaga bilakatu zen? Hipotesi honen alde zenbait argudio azal litezke. Lehenik, Arteaga abizena Arriagarena baino askoz zabalduagoa dago Zumaia inguruan. Bigarrenik, 1344ko dokumentua XVI. mendeko berridazketa bat dela gogoan izanda, eta Arriaga-Arteaga deituren arteko antzekotasun linguistikoa kontutan badugu, euskal abizenak ondo ezagutzen ez zituen eskribau gaztelar batek erraz nahastu zitzakeen. Paleografiaren ikuspuntutik ere, akatsa ez litzateke harrizkoa. Azken finean, horrek justifikatuko luke Zumaia inguruan Arriaga sendiaren arrastorik aurkitu ez izana, Arteaga abizenarekin gertatzen ez den bezala. Hala ere, zuhurki jokatu, Arriaga abizena mantenduko dugu agiri-froga sendoagorik agertu arte.

2.3. Dokumentuaren edukina: akordioak

Dokumentuan lortutako akordioa aztertu baino lehen, bi aldeei buruz dugun informazioa gogora ekar dezagun. Zumaiako biztanleek hiribilduaren sorrera bultzatzen ari zen komunitatea osatzen zuten. Ekimen honetan, bi hilabete lehenago Orreagako kolegiatarekin beste akordio bat hitzartua zuten. Erakunde erlijioso horrek Zumaiako elizaren gaineko eskubideak eman zizkien biztanleei, elizak zituen ondasun batzuekin batera, hala nola, lursailak, sarobeak, errotak, etab. Lope Ibañez de Arriagak, aldiz, Zumaiko lekuan, argitu gabeko eskubide batzuk zituen.

Akordioaren helburua hiribildua sortzeko Zumaiako lekua lortzea zen. Horretarako, Lope Ibañez de Arriagak, leku hori zeukanak, bere eskubideak eman behar zituen: *que el dicho Lope Ybáñez dé la dicha tenencia y posesión que abía y tenía... por syenpre jamás a los dichos pobladores... el dicho lugar de Çumaya con todos sus derechos e pertenencias... para fazer d'él y en él la dicha población.*

Ordainean, Zumaiako biztanleek Orreagako kolegiatarekiko akordioan esku-ratutako eskubide eta ondasunetako batzuk eskeintzen zizkieten Lope Ibañezi.

20. TOLA DE GAYTÁN, Marqués de. "Parientes Mayores de Guipúzcoa. Señores de la Casa Solar y palacio de Zarauz en Zarauz". In: *BRSVAP*, II zenb., 1946. Donostia: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País; 407-420 orr.; eta III zenb., 1947; 45-65 orr.

Lehenik eta behin, Zumaiako San Pedro elizak jasotzen zituen hamarrenak zein beste errentak: *todas las rentas y diezmos y probechos y beneficios de la yglesia de San Pedro del dicho logar de Çumaya*. Hauetaz gozatu ahal izango zen Lope Ibañez eta bere lehen ondorengoa. Bi belaunaldiak igarota, Arriagako familiak elizaren gain zituen eskubideak galduko zituen, kontzejuaren eskuetara bueltatuz. Honekin batera, beste ondasun batzuk ematen zitzaizkion, baina hauek, betirako, erabateko jabetzan. Hauek bi zatitan banatzen ziren. Alde batetik, jau-regi bat, dolare bat eta garai bat *para sí y para sus herederos y subçesores, la casa del palacio y la otra casa trullar²¹ y la madera y tabla del orrio*. Garaiari dagokionean, eraikina baino ez zitzaion ematen Arriagari: biztanleek lurraren jabegoa mantentzen zuten. Hain zuzen ere, itunean *madera y tabla del orrio* soilik ematen zirela adierazten zen, hots, eraikinaren materialak. Horretaz gain, biztanleek garaia lekuz aldatzeko eskubidea zuten. Horrelakorik gertatuz gero, lurra beraientzat izango litzateke. Bestalde, San Pedro elizari zegozkion honako ondasun hauek entregatzen zitzaizkion Arriaga jaunari: Ytegui, Ozpide, Uvillost, Erebia, Alçaga, Aranzadi, Ateherbin eta Oikiako elizaren ondoko lursailak.

San Pedro elizaren errentetaz gozatu bitartean, Lope Ibañez de Arriagak eta bere ondorengoak parrokiaren kudeaketa izango zuten bere gain: elizan gutxienez erretore bat egoteaz arduratzen ziren eta, beraz, kaperau bat hildakoan, beste bat aurkeztu behar zuten, bere mantenua ziurtatuz, gainera. Gainera, apaizaren lana ikuskatu behar zuten: *tengan, mantengan y gobiernen... a su costa y misyón, un capellán misacantano*. Era berean, gerta zitekeen hazkunde demografikoa zela medio, elizan zerbitzatzeko, elizgizon gehiago beharrezkoak balira, Arriaga familiak aurkeztu eta mantenduko litzuzke. Baldintza hauek, hein batean, patronatu-eskubideak ezartzen zituen betebharrekin parekatu zitezkeen. Bestalde, bidaiariak Urola ibaia zeharkatu zezaten, txalupa bat bere txalupariarekin mantentzera beharturik zeuden. Hala ere, txalupa hori biztanleek egin beharko zuten. Azken xedapenean probestuaren ardurari buruz hitzegiten zen. Akordioaren arabera, probestuaren hautaketa biztanleen esku geldituko zen, beti ere erregek onartzen bazuen.

3. AGIRIAK SORTZEN DITUEN ARAZO BERRIAK

3.1. Zumaia “lekuaren” jabegoa eta fundazioaren aurreko egoera

Orain arte Zumaiako historian hiru aktore identifikatu dira: hasteko, tokiko komunitatea, denbora igaro ahala Zumaiako kontzejua eratuko zuena; bestalde, Orreagako ospitalea, elizaren jabea, eta azkenez, erregeak, tenplua fundatu eta Orreagari eman ziotenak. Horretaz gain, Gaztelako errege batek Alfontso XI.ak eman zion forua komunitateari. Baina orain, pertsonaia berri bat sartuko da eszenan: Lope Ibañez de Arriaga.

Testuan, *tenedor y poseedor del dicho logar de Çumaya* hitzekin aurkezten dute. Hitzon esanahia ez dago oso garbi. Gure ustez, ez dute jabego-eskubidea

21. “Trullar” hitza, gaztelerez “trujal” edo “lagar” hitzekin identifikatu daiteke, eta euskaraz, “dolarea” edo “lakoa” litzateke.

adierazten *stricto sensu*. Gehienez, Lope Ibañezek Zumaiako lekuan nolabaiteko eskubideak zituela esan dezakegu. Ez dakigu nola eta noiz lortu zituen. Hala ere, daitekeena da eskubide horiek oinarri juridiko sendorik ez izatea eta, aldi berean, hertsadura eta bortizkeriaren ondorioak izatea. Alde batetik, Zumaian bi mende geroago, biztanlegoak, izan zitekeen usurpazioaren oroipena gordetzen zuen. Izan ere, 1535-1536ko auziko alegatu baten arabera, *por non tener título ni cabsa* (Lope Ibañez) *al dicho lugar de Çumaya, lo mandaron desenbargar para los dichos veçinos de la dicha villa; e sy alguna posesi3n o, por mejor dezir, de tenençias tubieron sus pasados, aquella ser3a y fue tiran3a e biolençia*. Ezaguna da XIV. mendean zehar Gipuzkoak nobleziaren erasokortasuna nozitu zuela, historiografia klasikoak bando-gerraren testuinguruan kokatu duena. Kostaldean, Ganboatarrek zabaldu zuten beren eragina. Adibide batzuk ezagutzen dira. Beltran Ibañez de Gebarak 1305ean Zarauzko parrokia-elizaren patronatua lortu zuen Fernando IV.a erregearen donazioaren bitartez. Bere boterea hiribilduan hedatzeko bidean, lehen urratsa izan zen. Geroago, Zarauz familiaren eskuetan geratu zen tokiko nagusitasuna. Egoera esaldi famatu batean laburbiltzen da: *Zarauz antes que Zarauz*. Modu berean, Oikian leinuen arteko auzien berri daukagu eta berdintsu gertatzen da Deban eta Zestoan. Kostaldetik at, antzeko arazoak Azkoitian, Elgetan eta Elgoibarren behatzen ditugu²². Giro gatazkatsu honetan²³, Ganboatarren laguntzaz, agian, ezarri zuen bere eragina eta kontrola Zumaian Lope Ibañezek edo bere familiako aurrekari batek.

3.2. Hiribildua fundatzeko itun eta akordioen konplexutasuna

Lope Ibañezekiko itunak nola laguntzen digu Zumaia hiribilduaren fundazioaren prozesua ulertzen? Hasteko, aurkezten dugun testuak garbi frogatzen du 1347ko forua eman aurretik negoziazioak izan zirela erregearen eta Saiazko biztanleen artean. Populaketa-gutunak berak jakinarazten du Zumaiako biztanleek eskatu zutela hiribildua egitea. Baina orain, zehaztasun handiagoz dakigu: *en raz3n y sobre fecho que a plazer y reverençia y serviçio de Dios y del rey nuestro sennor y a honrra y probecho de las dichas partes, es tratado, acordado y hordenado de fazer poblaci3n de villa en el dicho logar de Çumaya*. Historialariek erregerekiko akordio horiek susmatzen zituzten jadanik, baina orain, gera zitezkeen zalantzak ezabatzen dira. Bestalde, foru-donazioaren aurreko negoziazioak uste baino konplexuagoak izan ziren. Izan ere, biztanleek errege eta Orreagarekin ezezik, tokiko nobleziarekin ere bilatu behar izan zituzten konponbideak. Egitez, esan bezala, urte berean, 1344an, bi itun izan ziren. Alde batetik, urriaren 30ean, Orreagarekin; beste alde-

22. BARRENA OSORO, Elena. "La carta puebla de Zumaia"; 17-23 orr.

23. Populaketa-gutunean, bortizkeria-giroa zela adierazten da nolabait: *los omnes fijosdalgo de Seaz... rresçiben muchos males e dappnos de algunos omnes*. Gehienetan, testuinguru honetan, horrelako hitzak, nobleziak sortutako gatazken adierazletzat hartzen dira. Ik. MARTÍNEZ DíEZ, Gonzalo, et alii. *Colecci3n... 1. (1200-1369)*; 238. agjria. Bando-gerrei dagokienez, ikusi beste lan batzuen artean: LEMA PUEYO, José Ángel et alii: *Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)*, 1. arg. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2000; 20-82 orr.; eta LEMA PUEYO, José Ángel et alii: *El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539)*, 1. arg. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2002; 59-113 orr.

tik, ia bi hilabete geroago, abenduaren 27an, Lope Ibañezekin. Testuon edukinari begira, badirudi lehenak bigarrena betetzeko kondizioak jarri zituela. Edo bestela esanda, testu modernoagoa ezin da ulertu lehena kontutan izan gabe.

Ondorioz, ekin diezaiogun dokumentuon alderaketari. Bi itunetan, biztanle jakin batzuk nabarmentzen dira: Orreagarekiko akordioan, sei; Lope Ibañezekiko itunean, zortzi. Biotan lau izen errepikatzen dira: Beltran Ibañez de Dornutegui, Beltran de Arteaga, Martin Lopez de Liciobiaga²⁴ eta Pedro Ibañez Matanca²⁵. Horietako biri “don” ohorezko tratamendua ematen zaie. Errepikatzen ez diren pertsonaiei dagokienez, hiruk abizen bera partekatzen dute, hau da, “Ochango”. Hiruotatik bat, Orreagarekiko paktuan aurkitzen duguna, gailentzen da “don” hitzarekin: don Beltrán Martínez de Ochango kaperaua. Hiribilduaren fundazio aurreko akordioetan izan zuten protagonismoan antzematen dugu biztanle hauen nagusigoa. Aipatutako bi dokumentuetan, hiribildua sortu nahi duen komunitatearen ordezkariak dira. Beharbada, ordezkaritza horietan antzeman daiteke 1347ko kontzejuaren aurrikina.

Kontzejua eratzeko prozesua agiriaren beste aipamen batean ere beha daiteke askoz garbiago: *quando los dichos pobladores ovieren nonbre de conçejo y sello de suyo, que farán sellar con el dicho sello estas cartas, en testimonio de las cosas sobredichas*. Bestela esanda, negoziazioetan esku hartu zutenek biztanleen komunitatea kontzeju bihurtzea espero zuten. Zigilua, beste hiribilduek zuten erara, erakunde berriaren ikurra eta nortasunaren seinalea izango zen.

Kontzejuaren eraketarekin erlazionaturik, 1344ko abenduko agirian probestuaren arduraz hitz egiten da lehen aldiz. Donostian ezagutzen dugu kargu hori eta bere funtzioa erregeren izenean justizia egitean zetzan. Donostiako historian, familia batek, Mans-Engomez leinuak, izan zuen erantzunkizun hori koroaren donazio bati esker²⁶. Zumaian, Lope Ibañez de Arriagarekin hitzartu zuten bezala, biztanleen eskuetan geratuko litzateke probestuaren ardura erregerengandik lortu ahal izanez gero. Interesgarria da karguaren aipamena. Baliteke 1344an nola-baiteko tirabirak izatea arazo horren inguruan komunitatea eta Lope Ibañezen artean. Gure iritziz, azken horrek amore eman zuen biztanleen zenbait kontzesioeren truke. Populazio-gutunean, Alfontso XI.ak kontzeju jaio berriari utzi zion karguaren izendapena. Hala ere, hurrengo mendean (nola gertatu zen, ez dakigu zehazki) Lope Ibañezen ondorengo batzuk izango ziren probestuak²⁷. Errege pribilegioaren bitartez lortu zuten ala kontzejua kontrolatzen zutelako? Arazoa argitzeke dago oraindik.

24. Lope Ibañezekiko itunean “Liaobiaga” agertzen da “Liciobiagaren” orde. Baina pertsonaia bera dela susma dezakegu.

25. Lope Ibañezekiko itunean izena luzeagoa da: “Pedro Ibañez de Gamboa, dicho «Matanqua».

26. TENA GARCÍA, Soledad. *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería, y Fuenterrabía (1200-1500)*, 1. arg. Donostia: Instituto Doctor Camino de Historia Donostiara, 1997; 390-393 orr.

27. VILLACORTA MACHO, Consuelo. *Edición crítica de las buenas andanzas*; 265 or. AGINA-GALDE, Francisco Borja de. “Notas sobre los niveles estamentales”; 322-323 orr.

Bi itunotan, zenbait pertsonaz aparte, toponimo batzuk ere errepikatzen dira. Hau da, Orreagak biztanleei hogeita bi ondasun higiezin eman zizkien hiribilduaren fundazioa ahalbideratzeko asmoz. Multzoa lursailek, landek, errotek, etxe, presa, sarobe eta hareatz batek osatzen zuten. Horietatik zortzi bi hilabete geroago agertzen dira berriro Lope Ibañezekiko akordioan. Hitzartutakoaren arabera, Lope Ibañezek zortzi ondasunok jasoko zituen biztanleeengandik eta horiekin batera, aurreko itunean aipatzen ez den beste leku bat, *Alçaga* izenekoa. Tarte kronologiko hori hain laburra izanik, lehen akordioa bigarreanean pentsatuz egin zutela susma dezakegu. Beraz, dirudienez, tokiko komunitateak Orreagak emandako ondasunak behar zituen –zati bat, behintzat– Lope Ibañezekiko ituna egiteko, antza. Izan ere, Lope Ibañezek bere eskubideei uko egitea nahi bazuten, Zumaiako biztanleek konpentsazioa eman behar zioten ordainean.

3.3. Parrokiaren izenaren aldaketa: Santa Maria versus San Pedro

Lehen atalean adierazi genuenez, Santa Maria elizak XIV. mendean izen berria hartu zuen: San Pedro, egun mantentzen dena. Hori da behintzat iritzi zabaldua. Orain arte aldaketaren lehen froga 1382ko agiri bat izan da. Guk geuk aurkeztu dugun dokumentua aztertu ondoren, aldaketaren data zuzendu ahal dugu. Testuaren transmisioan okerrik edo manipulaziorik izan ezean, garbi dago San Pedro izena 1344an erabiltzen zutela jadanik. Lope Ibañezekiko itunean agertzen den bezala, aipamena ezin garbiagoa da: *la yglesia de San Pedro del dicho logar de Çumaya*. Beraz, Alfontso XI.ak populaketa-gutuna eman baino lehentxeago.

Hauxe da aldaketaren agiri-testigantza zaharrena: 1344 urtea abiapuntu kronologikoa da arazoa eztabaidatzen hasteko. Egja esan, gure proposamena bat dator Olaechearen proposamenekin kronologiari dagokionez. Hala ere, bat etortze hori halabeharrezkoa da, aipatu egileak gaizki datatu zuen beste dokumentu bat erabiltzen baituelako bere hipotesiak justifikatzeko²⁸.

Beste agiri berriak aurkitu arte, aldaketa kokatzeko tarte kronologiko zabal bat hartu behar dugu kontuan. Santa Maria hagianimoa, dakigunez, 1292an frogaturik dago azken aldiz Zumaiako elizan. Esan bezala, berria 52 urte geroago agertuko zen. Beraz, zilegi litzateke prozesua XIV. mendearen lehen erdian gertatu zela pentsatzea. Horrek Zumaiaren bilakaera ekonomikoarekin zerikusirik duen ala ez beste arazo bat litzateke.

3.4. Parrokiaren antolamendua eta ondarea: Zumaiako parrokiaren kasua Markinako kasuarekin alderaturik

Bigarren atalean, Zumaiako parrokiaren antolamendua eta administrazioa azaldu genituenean, Lope Ibañez eta bere ondorengoaren eskubide eta betebe-

28. OLAECHEA, LABAYEN Juan Bautista. "Zumaya y su vinculación con Roncesvalles"; 202-208 orr. ECHAVARRÍA, Ana Isabel. "Puntos religiosos de Zumaiá". In: *Zumaiako 650. mendeurrenaren hitzaldiak*, 1. arg. Zumaiá: Zumaiako Udala (L. G.: 1999); 61 or.

harrak aztertzeko aukera izan genuen. Orain, Zumaiako kasua beste kasu batekin alderatuz, antzekotasunak eta berezitasunak azpimarratzea interesgarria litzateke.

Patronatu-eskubideak Euskal Herriko Kantauri isurialdean oso zabaldua bazeuden ere, adibiderik hurbilena leku batean aurkitzen dugu: Markinan, hain zuzen. Dakigunez, Bizkaiko jaunak hiribildu horri 1355eko maiatzean forua eman zion. Agiriaren xedapenetan agertzen den bezala, Xemeingo eliza biztanleentzat izango zen 1.200 marabediko urteroko errenta baten truke. Urte bereko ekainean, kontzejuak bi pertsonaia boteretsuri egín zien donazio bat: Pedro Galindez de Marquinari eta Lope Ibañez de Marquinari. Bata Barroetako jauna zen; bestea, Ugartekoa. Itunaren bitartez, Xemeingo elizako patronatua eta errentak bi aiton seme horien eskuetan geratuko ziren betiko, hiribildua sortzeko emandako “laguntza” eskertzeko. Forua eman zenetik hilabete soilik igaro zela ikusita, donazioa alde aurretik hitzartua zegoela pentsatu beharko genuke. Zumaiara itzultzen bagara, antzekotasuna ukaezina da: bi kasuetan tokiko nobleziarekiko akordioak eta negoziazioak beharrezkoak izan ziren fundazioa ahalbideratzeko. Gainera, bi hiribilduetan, Markinan eta Zumaian, eliza eta bere errentak dira arazo garrantzitsuenetako bat. Hiribildu berri bat fundatzerakoan, Ahaide Nagusiak (horrela identifkatu ahal ditugu bai Lope Ibañez de Arriaga bai Barroeta eta Ugarteko jaunak), beren eragin sozialari eutsi nahian, parrokiaren patronatuak eta errentak bereganatzen saiatu ziren konpentsazio gisa. Markinako kasuan, horrela erdietsi zuten emandako “laguntza” baten aitzakiaz baliaturik. Agian, “laguntza” hori pasiboa izan zen: fundazioa ez oztopatzea. Jarrera onaren prezioa eliza izan zela susmatu ahal dugu. Zumaiako kasuan, Lope Ibañezek hiri-gunea fundatzeko lekua utzi zuen eta konpentsazio gisa elizaren errentak eta ondasun batzuk jaso. Lehenago azaldu dugun bezala, ezin dugu jakin noiztik zuen lurraren kontrol hori eta benetako jabetza zuenentz²⁹.

29. ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, Javier. *Colección Documental del Archivo Municipal de Marquina*, 1. arg. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1989 (Colección de Fuentes Documentales Medievales, 19); 1 eta 2. agiriak (1355ekoak biak).

ERANSKINA

1344ko abenduaren 27an. Zumaian

Zumaiako lekuko biztanleek eta Lope Ibañez de Arriagak akordioa egiten dute. Honen bitartez, Lope Ibañezek Zumaiako lekua eta honen gain dituen eskubideak ematen dizkie biztanleei, bertan hiribildua sortu dezaten, eta hauek, ordainez, Zumaiako San Pedro elizaren errentak ematen dizkiote bi belaunalditarako, eta bertako jauregia, beste lur eta ondasun batzuekin batera, betiko.

– Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles, Escribanía Varela. Pleitos Fenecidos. C 476/1, 5 zenb. 1535-1536ko auzi batean txertatutako kopia.

En el nonbre de Dios y de Santa María, Su Madre, y de toda la corte çelestial, amén. Sepan quantos esta carta vieren, cómo día lunes, veynte y siete días de dezienbre, era de mill y trezientos y ochenta y dos annos, en la ribera de Çumaya, en presencia de mí, notario y escrivano público y testigos de yuso escriptos, fueron juntados y llegados don Beltrán Ybánñez de Dornutegui y don Beltrán d'Arteaga y Pero Ybánñez d'Ochango y Juan Ynéguez d'Anda³⁰ y Juan Martín de Çeçenarro y Martín López de Liaobiaga³¹ y Pero Ybánñez de Ganboa, dicho “Matanqua”, y Ganbo de Eçuri y grand partida del pueblo común pobladores del lugar de Çumaia, cada uno de ellos por sí y en nonbre de todo su poder, mandamiento y orden y de todos sus subçesores // y herederos y de toda su boz, asý por los que y heran presentes como por los venideros omes y mugeres a quien de derecho esto pertenesçe y debe y puede pertenesçer, de la una parte; y Lope Ybánñez d'Arriaga, tenedor y poseedor del dicho lugar de Çumaya, por sí y en nonbre de todo su poder, mandamiento y orden y de todos sus suçesores y herederos y de toda su boz, de la otra parte; en razón y sobre fecho que, a plazer y reverençia y serviçio de Dios y del rey nuestro sennor, y a honrra y probecho de las dichas partes, es tratado, acordado y hordenado de fazer poblaçión de villa en el dicho lugar de Çumaya. Y las razones por que la dicha poblaçión de un asentamiento se debe seguir, continuar y acabar son éstas: qu'el dicho Lopes Ybánñez dé la dicha tenencia y posesión que abía y tenía, y estaba el dicho lugar halargado, quitado y desenbargado, bien d'agora para en todo tiempo y por syenpre jamás, a los dichos pobladores y para ellos y para sus herederos y subçesores, el dicho lugar de Çumaya con todos sus derechos y pertenençias que ha y debe y puede aber, y le pertenesçen y deben y pueden pertenesçer, así que los dichos pobladores y sus herederos y subçesores ayán y puedan aber el dicho lugar de Çumaya con todos sus derechos y pertenençias, para fazer d'él y en él la dicha poblaçión y toda su propia voluntad como de lo suyo franca y libre y quitamente, syn embargo y syn otro entredicho ninguno. En tal manera que por ese dicho desenbargamiento y quitamiento qu'el dicho Lope Ybánñez faze y ha fecho, como dicho es, los dichos pobladores le otorgaron y dieron y prometieron qu'el dicho Lope Ybánñez, en toda su vida, aya razón, poder y derecho de llevar y tomar y resçibir en su poder todas las rentas y diezmos y probechos y benefiçios de la yglesia // de San Pedro del dicho lugar de Çumaya. Y que los dichos pobladores y cada uno d'ellos sean tenidos de las dar y recudir y librar al dicho Lope Ybánñez bien y fiel y berdaderamente, segund a la dicha yglesia de derecho y de razón y de uso y costumbre se suelen y deven dar, para qu'el dicho Lope Ybánñez faga d'ello a so plazer y a so propia voluntad como de lo suyo y franca y libre y quitamente, syn embargo y syn otro entredicho ninguno. Y después de los días del dicho Lope Ybánñez, que aya razón, poder y derecho Joan

30. “Anda”; irakurketa zalantzarria da, “Unda” ere irakur baitaiteke.

31. “Liaobiaga”; irakurketa zalantzarria; “Liçiobiaga” ere izan liteke.

López, fijo del dicho Lope Ybáñez, en toda su vida, de llevar, tomar, resçibir en su poder todas las dichas rentas y diezmos y probechos y benefiçios de la dicha eglesia. Y sy por aventura, lo que Dios no quiera, sy Dios fiziese su comendamiento del dicho Joan López ante que del dicho Lope Ybáñez, que entonçe el dicho Lope Ybáñez, en ese tiempo y sazón, sea tenido de mostrar y de nonbrar uno de sus hijos, qual por bien toviere, para que liebe, tome y resçiba en toda su vida las dichas rentas y diezmos y probechos y benefiçios, segund que los obiera de aber y llebar y resçibir el dicho Juan López. Y después que Dios fiziere su comendamiento del dicho Lope Ybáñez y del dicho su fijo que obiere de aber y llebar las dichas rentas y diezmas y benefiçios en la manera que dicha es, dende adelante la dicha eglesia, con todos derechos y rentas, diezmos y bienes, que finque para los dichos pobladores y para sus herederos y subçesores para en todo tiempo y por syenpre jamás, franca y libre y quitamente, syn embargo y syn otro entredicho ninguno. Y otrosý, que bien d'agora para en todo tiempo y para syenpre jamás, el dicho Lope Ybáñez aya por juro de heredat, para sí y para sus herederos y subçesores, la casa del palaçio y la otra casa trullar y la madera y tabla // del orrio, que son en el dicho logar de Çumaya; en tal manera que sy los dichos pobladores y sus herederos y subçesores se enojaren y tomaren y resçibieren enojo o embargo del dicho orrio, y lo quisieren trasmudar y llebar dende para otro logar, que los dichos pobladores y sus herederos y suçesores, quando quisieren y por bien tobieren, lo puedan dende tirar, trasmudar y llebar el dicho orrio a otro logar que sea conveniente, y que finque a los dichos pobladores y para ellos el suelo y el logar en qu'el dicho orrio agora oy día es y está. Y otrosý más, que aya el dicho Lope Ybáñez para sí y para sus herederos por su heredat toda aquella parte de tierras que San Pedro y la dicha so eglesia ha y debe aber en Aguirre y en Ytegui y en Ozpide y en Uvillost y en Erebía y en Alçaga y en Aranzadi, y una pieça que ha en Ateherbin y otra pieça que ha cabo la eglesya de San Bartolomé de Oyquina. Todos estos dichos bienes y cada uno d'ellos que ayan el dicho Lope Ybáñez y sus herederos, segund dicho es, en tal manera qu'el dicho Lope Ybáñez y el so fijo, en quanto llebaren y ovieren y tomaren los dichos diezmos y rentas y benefiçios de la dicha eglesia de Çumaya, que tengan y mantengan y gobiernen, y sean tenidos de mantener y tener y gobernar, a su costa y misión, un capellán misacantano con so escolar, que cante misas continuamente en la dicha eglesia de Çumaya. Y quando la dicha población se fiziere y amuchoguar, sy los dichos pobladores dende y sus subçesores obieren mester más clérigos, qu'el dicho Lope Ybáñez y el so fijo que oviere de llevar y aver las dichas rentas y diezmos y benefiçios de la dicha eglesia de Çumaya, sean tenidos cada uno de ellos en su tiempo de tener y mantener y gobernar a su costa y misión dos o tres clérigos, segund que la dicha población // fuere amuchoguardo y mejorando, para que canten misas en la dicha yglesia de Çumaya como dicho es. Y más, qu'el dicho Lope Ybáñez y el su fijo que obiere de aber y llebar las dichas rentas, diezmos y benefiçios, en quanto los llebaren cada uno d'ellos en su tiempo en toda so vida, a su costa y misión, sean tenidos de tener y mantener y gobernar una barca pasajera buena, sana, con so ome barquero y pasajero para pasar en el río y agua dende los viandantes que por ay ovieren mester de yr y de pasar; enpero, que la dicha barca, que la fagan los dichos pobladores a su costa y misión. Y otrosý, qu'el ofiçio de la prebostad del dicho logar de Çumaya, que syenpre finque y sea retenido en poder de los dichos pobladores (*si podieren*) la ganar del dicho sennor rey, para quien quesieren, quando mester fuere y por bien toviere. Y todo esto que dicho es anbas las dichas partes otorgaron y firmaron y prometieron a bona fe syn enganno de lo tener y guardar y cunplir en todo y por todo, en la manera y segund las condiçiones que dichas son, y de no venir ni fazer venir en contra, en todo ni en parte, en ninguna manera, so obligación de ypoteca de sí mesmos y de todos sus bienes muebles y rayzes, ganados y por ganar. Y cada uno d'ellos, por sí por el todo, se obligaron a esto de presente. Y de todo esto las dichas partes rogaron y mandaron a mí, Ochoa Ybáñez, notario y escrivano público de la villa de Guetaria, que fiziese ende dos cartas partidas por a b c, para cada una de las partes la suya. Y quando los dichos pobladores ovieren nonbre de conçejo y sello de suyo,

que farán sellar con el dicho sello estas cartas, en testimonio de las cosas sobredichas. D'esto son testigos que fueron presentes: don Beltrán Martínez d'Ochango, capellán, y Lope Ybáñez d'Arçubiaga y Joan Martín d'Oçaca, vezinos de la dicha villa de Guetaria, y Esteban de Monterreal, capellán // vicario de Ayçarnaçabal, y Joan Pérez d'Erquizqueta, dicho "Gayzcot", y Sancho Miguélez d'Acoa y otros omes. Y yo, Ochoa Ybáñez, notario y escribano público de la dicha villa de Guetaria, por el conçejo d'este mesmo logar, que de abtoridad de mi ofiçio fui presente a esto que dicho es, por ruego, mandamiento y otorgamiento de las sobredichas partes, fiz y escriví d'esto dos cartas partidas por a b c, anvas en un tenor, tal la una como la otra, cada una de las partes la suya, de que es ésta la una d'ellas, y fiz en cada una d'ellas este mio sygno en testimonio de verdad. Fechas en el día de lunes y en la era y logar sobredichos.